



TXOSTENA

XEHETASUNAK

Gaia: Lekarozko Aroztegiko UGPSren eragin linguistikoaren ebaluazioa

Data: 2016ko otsailaren 4a.

Egileak: Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria

Hartzailea: alkate jauna

LABURPENA

Lekarozko Aroztegiko Udalez Gaindiko Plan Sektorialak (UGPSk) gune hauek aurreikusten ditu: kirolgunea (golf zelaia, 9 zulokoa; golf praktika-zelaia; golf eskola; eta lorezaintza eskola), hotelgunea (hotela-bainuetxea-spa, 135 logelakoa, 4 izarrekoa; hotelari atxikitako eraikinak, biltzar eta ospakizunetarakoak; eta jatetxea) eta biziginea (228 etxebizitza, familia bakarrekoak eta binakakoak, hiru bizitegitan antolatuturik).

Hirigintza proiektu handi horrek erakarriko dituen jarduera ekonomikoek eta bisitari, erabiltzaile nahiz biztanle berriek egungo Baztango egoera soziolinguistikoari eraginen diola hipotesia izanda, balizko hizkuntza eragin hori zehaztu beharra ikusi da.

Eragin hori objektibatzen, Baztango Udaleko Euskara zerbitzu teknikoak, UEMAREN laguntzaz, Lekarozko Aroztegiko UGPSren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egin du.

ONDORIOA

Objektibatu den balizko ERAGIN LINGUISTIKOA:

Adierazle multzoa	Indizea (Baztan)	Proiektua osotasunean betez gero
Bizi-kalitatea	51	Larria
Ekonomia	17,8	Garrantzi gutxikoa
Azpiegiturak	45,3	Moderatua
Komunitatear. gizarte eta kultura bizitza	59,2	Larria
Biztanleriaren ezaugarriak	77,5	Kritikoa

PROPOSAMENA

- Txosten honek Udaleko bertze teknikari batzuen ekarpena biltzea.
- Neurri zuzentzaileak proposatuko lituzkeen batzorde diziplinartekoa eratzea, Aroztegiko UGPSk aitzina eginen balu.
- Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa administrazio prozeduran sistematikoki ezartzea, UEMAK gomendatu bidean.

Paula Kasares
Baztango Udaleko Euskara Zerbitzuko teknikaria

Lekarozko Aroztegiko UGPSren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa

0. SARRERA

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa (ELE, hemendik aitzina) jarduera edo proiektu batek eremu jakin batean izan lezakeen hizkuntza eragina aurreikusteko ikerketa da.

ELEren metodologia Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Udallerri Euskaldunen Mankomunitateak (UEMAk) elkarlanean sortu dute. 2012ko maiatzean hiru erakundeek lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten udallerri euskaldunak, euskaldun kopuru handia dutenak, zaintzeko, sustatzeko eta hedatzeko. Harezkerok metodologia landu da eta baliatu da ikerketa bat egiteko Gipuzkoan, Tolosaldean (TORRENE CONSULTING, BAI ARKITEKTURA HIRIGINTZA eta ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA, 2014).

ELE honetarako egiten da: jarduera edo proiektu batek eremu jakin bateko errealitate linguistikoan izan dezakeen eragina aurreikusi, identifikatu eta ebaluatzeko, bai eta egoki joz gero, eragin hori gutxitzera zuzentzeko neurriak proposatzeko ere.

Eragin linguistikoa honela definitu dugu: proiektu edo jarduera batek eremu jakin bateko egoera soziolinguistikoan sortzen duen aldaketa. Eragin linguistikoa hizkuntza batendako positiboa, negatiboa edo neutroa izan daiteke (UEMA, 2015: 5).

Hala bada, Lekarozko Aroztegiko Udalez Gaindiko Plan Sektorial (UGPS, hemendik aitzina) proiektuaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa hirigintza alorreko egitasmo horrek Baztanen izan lezakeen hizkuntza eragina aurreikusteko ikerketa da. Hau da, proiektu horrek udalerriko euskal hiztun elkarteari eraginen diona aurreikusteko.

ELE hau Baztango Udalak erabaki du egitea, Lekarozko Aroztegiko UGPSren dimentsioaz oharturik, horrek udalerrian lekarkeen hizkuntza eraginaz kezkatutik. Izan ere, Baztango Udalak tokiko hizkuntza historikoa udalerrian babestu, zabaldu eta zaindu beharra du eta eginbehar horri sustapen politikak eta hainbat baliabide eskaini dizkio hondar urteotan.

Ikerketa hau, Nafarroan egin den ELE lehen azterketa da, Udaleko Euskara Zerbitzu teknikoak egina UEMAren aholkularitzaz eta laguntzaz.

Txosten honek Udaleko bertze teknikarien ekarpena bildu du. ELEren baliagarritasuna ikusirik, Euskara zerbitzuak apailatu duen txosten hau hirigintza, garapen eta gizarte arloko teknikariek osatutako batzorde diziplinarteko batekin egiaztatua izan da.

1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Proiektua, UGPStako bideratua, PALACIO DE AROZTEGUÍA SM enpresak sustatu du eta Baztanen hirigintza jarduera batzuk aurreikusten du Lekarozen, Elizondo ondoan. Enpresa sustatzaileak bere egitasmoa www.palaciodearozteguia.com webgunean azaldu du.

Proiektuak hauek ekarriko ditu (NAFARROAKO GOBERNUKO SUSTAPEN DEPARTAMENTUKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA ZERBITZUA, 2014: 8):

Guneak	Eraikinak
Kirolgunea	Golf zelaia, 9 zulokoa
	Golf praktika-zelaia
	Golf eskola
	Lorzaintza eskola
Hotelgunea (hirigintza proiektuaren erdigunea izanen dena)	Hotela-bainuetxea-spa, 135 logelakoa, 4 izarrekoa
	Hotelari atxikitako eraikinak, biltzar eta ospakizunetarakoak.
	Jatetxea
Bizigunea	228 etxebizitza, familia bakarrekoak eta binakakoak, hiru bizitegitan antolatuturik

Hirigintza proiektuak 45 Ha inguru (448.650,4 m²) hartuko ditu, honela banaturik (ibid.):

Erabilerak	Azalera (m ²)
Hotelgunea	17.448,48
Kirolgunea	227.540,62
Bizigunea	89.889,85
Berdegunea	48.621,88
Sistema orokorrak	9.063,88
Bideak	40.236,00
Lurzoru Publikoaren Foru Bankua	3.137,10
Espazio publiko librea	12.712,59
Guztira	448.650,40

Nafarroako Garapen Sozietateak egindako ikerketaren arabera (ibid.:13) eragin sozio-ekonomikoa hau izanen litzateke:

Fasea	Eraikuntza	Funtzionamendua	Guztira
Jauregiak kontratatutakoak	50 lanpostu	52 lanpostu/urteko	
Eragindako gastua	20.140.520 €	21.204.161 €	41.344.681 €
Eragindako BEG (Balio Erantsi Gordina)	15.296.000 €	14.380.000 €	29.676.000 €
Sorraraziko dituen lanpostuak	251 lanpostu	284 lanpostu	535 lanpostu
Zerga-bilketa	2.401.472 €	2.257.660 €	4.659.132 €

Eskualdeko lanbabeziaren tasaren beherakada aurreikusten da: langabetuen ehuneko orokorraren jaitsiera % 11,9tik % 8,8ra; eta bereziki nabaria emakumezkoen langabeziari dagokionez, % 13,6tik % 9ra apalduko baita.

Proiektuak turismo eskaintza kalitatezkoa handitzea eta bigarren etxea nahiz egoitza nagusia udalerrian izan nahi duen erosteko ahalmen handiko jendea ekartzera du xede.

Proiektua ekimen pribatuak bulkatua da. Baztango Udalaren Planak ahalbidetzen ez baitu, Nafarroako Gobernuak UGPStako bideratzea erabaki du. Baztango Udala erabaki horren kontra dago eta auzitegietara jo du.

2. EBALUAZIO PROZESUA

Hizkuntza eragina neurtzeko honako datuok hartuko dira aintzat:

Datu mota	Indizea	Datua				
Demografikoak	Biztanle kopurua	7.848 (INE, 2014)				
	Biztanle kopuruaren bilakaera	8.293 (1991)				
		8.064 (2001)				
		7.972 (2011)				
	Haur-indizea	0-14 urteko biztanleen % 15,4				
	Zahartze-indizea	≥ 80 urtekoak biztanleen % 8,0				
	Banaz bertzeko adina	44,5				
Atzerritar indizea	Atzerrian sortutakoak biztanleen % 8					
Atzerritar indizean bilakaera	1998 ... % 2,2					
	2002 ... % 3,9					
	2006 ... % 6,2					
	2010 ... % 8,6					
	2014 ... % 8					
	Ekipamenduak eta azpiegiturak	Kultur etxea	Bai, Elizondon			
		Osasun etxea	Bai, Elizondon, eta 5 kontsultategi.			
Ikastetxeak		Bai, udalerriko 15 herrietatik 11tan				
Parkeak		Bai				
Bidegorriak		Ez				
Aisialdiko guneak		Bai				
Zinema		Ez				
Elkarte gastronomikoak		Bai				
Gazteen lonjak		Bai, Elizondon				
Soziolinguistikoak	Euskara gaitasuna	Elebidunak	6.019	% 75,5	2011	
		Eleb. hartzail.	1.054	% 13,2		
		Erdaldunak	781	% 9,8		
		Ez du erantz.	118	% 1,5		
	Lehen hizkuntza	Euskaraz	4.884	% 61,3	2011	
		Gaztelaniaz	1.739	% 21,8		
		Biak	1.037	% 13,0		
		Bertze bat	108	% 1,4		
	Etxeko hizkuntza	Ez du erantz.	202	% 2,5		
		Euskaraz	3.655	% 45,9	2011	
		Gaztelaniaz	2.656	% 33,3		
		Biak	1.366	% 17,1		
Euskara gaitasun. bilakaera	Bertze bat	53	% 0,7			
	Ez du erantz.	241	% 3,0			
	Elebidunak	1991	%76,8	2001	2011	
	Eleb. hartzail.	%76,2	%75,5			
Lehen hizkuntzaren bilakaera	Erdaldunak	% 7,6	% 7,8	%13,2		
	Ez du erantz.	%11,1	%11,4	% 9,8		
	Euskaraz	% 4,5	% 4,6	% 1,5		
	Gaztelaniaz	1991	%71,5	%71,0	2011	
Etxeko hizkuntzaren bilakaera	Biak	%17,2	% 18,1	%21,8		
	Bertze bat	% 6,4	% 6,6	%13,0		
	Ez du erantz.	% 0,4	% 0,8	% 1,4		
	Euskaraz	% 4,5	% 3,5	% 2,5		
Etxeko hizkuntzaren bilakaera	Gaztelaniaz	1991	%50,4	%57,1	2011	
	Biak	%22,6	% 23,1	%33,3		
	Bertze bat	% 0,1	% 0,5	% 0,7		
	Ez du erantz.	% 4,5	% 3,5	% 3,0		

		<i>Urte tarteak</i>	<i>Eleb.</i>	<i>Ele har.</i>	<i>Erdal.</i>
	Euskara gaitasuna adinka	5-14	%93,4		% 3,0
		15-24	%85,9	% 3,3	% 7,5
		25-34	%81,0	% 2,9	% 7,7
		35-44	%72,8	% 8,8	%11,0
		45-54	%61,0	%16,1	%16,9
		55-64	%69,3	%18,8	%10,4
		≥ 65	%75,5	%19,4	% 9,0
Euskalgintza	UEMAn dago?	Bai			
	Euskara planik badu?	Bai			
	Udaleko Euskara zerbitzurik?	Bai			
	Araututako irakaskuntzarik?	Bai			
	Komunikazio hizkuntza	Tokiko euskarazko hedabideak.			
Sozioekonomikoak	Tokiko ekonomia	Lehen sektorearen establez.	% 1,3		
		Industriako establezimenduak	% 14,3		
		Eraikuntzako establezimend.	% 23,9		
		Zerbitzuetako establezimend.	% 60		
		Autonomoen tasa	% 48,3		
	Langabezia tasa	% 7			
		Langabetuen 10etik 4 emakum. eta 10tik 6 giz.			

3. ERAGIN LINGUISTIKOA

Proiektuaren eragina zein izanen den neurtzeko borts alderdiri edo adierazle-atali begiratu zaie eta horietako bakoitzean egungo egoera soziolinguistikoa eraginik ekartzea litekeena den ala ez hausnartu da.

3.1 Galdetegi laburra

Alderdiak edo adierazle-atalak	Eraginik?	Azalpen laburra
<p>1. BIZI KALITATEA</p> <p>Proiektuak eragina izan dezake pertsonen mugikortasunean? Bertakoen joan-etorriak ugaritu al ditzake?</p>	Bai	<p>Bizitegi berriek familiak erakarriko dituzte. Familia horiek egoiliar bilakatuko ote diren ez da ziurra, izan ere, litekeena da etxebizitza horietako asko bigarren etxebizitza izatea. Horretaz gain, zerbitzu berriek langileak, bisitariak eta erabiltzaileak erakarriko dituzte. Oro har, jendearen joan-etorri handia izanen da. Gainera, kalitate goreneko turismo eskaintzari loturik doa eta horrek bizi-maila, etxebizitza batik bat, garestitzea ekartzea litekeena da.</p>
<p>2. EKONOMIA</p> <p>Proiektuak eraginik izanen al du tokiko negozioetan (dendetan, ostalaritza establezimenduetan...)?</p>	Bai	<p>Bizitegi eta jarduera berriek bisitarien eta biztanleen tipologia aldatuko lukete, hau da, bezeroena eta horrek denda, ostatu eta enpresetan aldaketa ekartzea litekeena da.</p>
<p>3. AZPIEGITURAK</p> <p>Proiektuak eraginik izanen al du tokiko eskoletan?</p>	Bai	<p>Familia berriak etortzeak tokiko eskoletako matrikulazioa handitzea litekeena da.</p>
<p>4. KOMUNITATEAREN GIZARTE ETA KULTURA BIZITZA</p> <p>Proiektuak aldaketarik eraginen al du bertako tradizio/kultura euskaldunean (kultura adierazpenetan, kultur agendan, gastronomian, ohituretan, kirolean...)?</p>	Bai	<p>Jende alofono anitz erakarriko luketen zerbitzuek eta biziguneeek gizarte bizitzan eragina izatea litekeena da.</p>
<p>5. BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK</p> <p>Proiektuak bertako biztanle kopurua handituko du?</p>	Bai	<p>Bai, litekeena da bizitegi eta zerbitzu berriek familiak eta langileak erakarriko baitituzte.</p>

3.2 Eragin linguistikoa identifikatzeko eta baloratzeko galdetegia

Alderdi edo adierazle-atal bakoitzak zenbait adierazle barnebiltzen ditu, guztira 29:

Alderdiak edo adierazle-atalak	Eraginik?	Azalpen laburra
1. BIZI KALITATEA		
1. Proiektuak eraginik izan dezake pertsonen mugikortasunean? Bertakoen joan-etorriak ugaritu al ditzake?	Bai	Proiektuak aurreikusten dituen zerbitzuek (golf zelaiak, hotelak, jatetxeak, golf eta lorezaintza eskolek) eta bizitegiek pertsonen mugikortasuna handituko du egun halako deus ez dagoen gune batean. Mugikortasun horrek hiztun berriak ekartzea litekeena da. Bertzalde, lagun horietako gehienak udalerritik kanpokoak izatea eta euskaraz ez jakitea litekeena da eta horrek aldaketa ekarriko luke.
2. Proiektuak eraginik izan dezake bertako biztanleen osasunean eta bizi-kalitatean; eta horrek jendea bertatik joatera behartu al dezake?	—	
3. Proiektuak eraginik izanen du bertako jendearen bizi-mailan (bizimodua garestituko/ merketuko da?	Bai	Goi mailako kalitateari loturiko zerbitzuek ahalmen handiko bisitariak erakarriko ditu eta litekeena da horrek udalerriko bizimodua (etxebizitzak, lurra... batik bat) garestitzea.
2. EKONOMIA		
4. Proiektuak eraginik izanen du tokiko negozioetan (dendetan, ostalaritza-establezimenduetan...)?	Bai	Proiektuak bisitariak eta biztanleak erakarriko ditu, horietako gehienak erdaldunak izanen dira eta litekeena da horrek eragina izatea udalerriko dendetan eta ostalaritza-establezimenduetan batik bat.
5. Proiektuak eraginik izanen du tokiko lanpostuetan?	Bai	Proiektuak aurreikusten dituen hirigintza lanek eta ondotik sortuko diren zerbitzuek lanpostuak sortuko dituzte. Gainera hala dago objektibatuta Nafarroako Gobernuan.
6. Sortuko dituen lanpostuak bertako biztanleek beteko dituzte?	Bai	Proiektuak aurreikusten dituen hirigintza lanek eta ondotik sortuko diren zerbitzuek lanpostuak sortuko dituzte eta horietako batzuk bertakoek betetzea litekeena da.
7. Proiektuak eraginik izan dezake establezimenduetako/enpresetako ahozko edo idatzizko komunikazioan?	Bai	Proiektuak erakarritako biztanle eta bisitari erdaldunak bezero berriak izanen dira eta litekeena da bezeria berriaren hizkuntza ezaugarriek eragina ekartzea establezimenduetako/enpresetako ahozko (harrera, harremanak, telefono erantzungailua...) eta idatzizko komunikazioetan (publizitatea, fakturak..).
8. Proiektuak eraginik izan dezake establezimenduetako/enpresetako hizkuntza paisaian?	Bai	Proiektuak erakarritako bezeria erdaldunaren etorrera handiari egokitzeko litekeena da

		establezimenduetako/enpresetako hizkuntza paisaian aldaketak egotea.
9. Proiektuak eraginik izan dezake establezimenduetako/enpresetako jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan?	Bai	Proiektuak euskara ez dakien bezeria badakar litekeena da establezimenduek/enpresek beren zerbitzuak hizkuntza ezaugarri horietara lerratzea.
10. Proiektuak bultzatuko du ekonomia aniztasun handiagoa egotea?	Bai	Proiektuak udalerrian ez dagoen ekonomia arlo bat jorratuko du: goi mailako kalitateko edo luxuzko turismo eskaintzarena (4 izarretako hotela, golf zelaia, spa, kalitate handiko jatetxea...). Horrek orain artio udalerrian nagusi izan ez den bisitari mota bat ekarriko du eta litekeena da bezero horrek ez balioestea tokiko kultura berezitasuna.
11. Proiektuak eraginik izanen du etxebizitzaren batez besteko kostuan?	Bai	Proiektuak aurreikusten dituen jarduketek kalitatezko turismoa eta erosteko ahalmen handiko jendea erakartzeko pentsaturik baitago, litekeena da horrek Udalerriko (berezi Elizondo inguruko) etxebizitzaren salneurrian eragina izatea eta horien garestitzea ekartzea.
3. AZPIEGITURAK		
12. Proiektuak eraginik izanen du tokiko eskoletan?	Bai	Aurreikusten diren 228 etxebizitzek gehi sor litezkeen lanpostuek biztanleak emendatu eta familiak ugarituko dituzte. Horrek udalerriko eskoletan, Elizondoko eta Irurritako ikastetxeetan batik bat, eragina izatea litekeena da.
13. Proiektuak eraginik izanen du tokiko osasun-zerbitzu eta baliabideetan?	Bai	Hala biztanleria egonkorra nola aldi baterakoa handitzeak ondorioak izanen ditu osasun-zerbitzuetan eta arlo horretako baliabideetan. Gehitutako biztanleak batez ere erdaldunak izanen direla kontuan izanda, zerbitzu horien hizkuntza eskaintzan ere eragina izatea litekeena da.
14. Aldaketarik eraginen die oinarritzko zerbitzuei (dendei, posta bulegoari, bankuei, ostalaritza-establezimenduei...)?	Bai	Egoiliarak eta bisitariak handitzeak oinarritzko zerbitzuei eraginen die eta populazio berriaren hizkuntza nagusia gaztelania izateak ere eragina ekartzea litekeena da.
15. Toki horretako bide azpiegitura sarean aldaketarik ekarriko al du?	Bai	Eraikiko diren gunetara sarbide berria egingen da. Jende joan-etorri handiko gunek izatea espero baita.
16. Proiektuak aldatuko ditu garraiorako azpiegiturak?	—	
4. KOMUNITATEAREN GIZARTE ETA KULTURA BIZITZA		

17. Proiektuak aldaketarik eraginen du bertako tradizio/kultura euskaldunear? (kultura adierazpenean, kultura agendan, gastronomian, aisialdi-ohituretan, tradizioetan, kirolean)	Bai	Euskara ulertzen ez duten biztanle eta bisitari anitzen etorrerak luzera bertako tradizio eta kultura euskaldunetan eragina izatea litekeena da.
18. Eraginik izanen du tokiko eskoletan dauden eredueta?	Bai	Kanpotik etorritako familiak, batik bat euskaraz mintzatzen ez direnak, etorrira Elizondoko eta Irurritako eskoletan sumatuko da eta horrek Elizondoko eskolan iraugitzeko bidean dagoen A eredia berrindartzea litekeena da.
19. Eraginik izanen du ikasle euskaldunen eta erdaldunen arteko orekan?	Bai	Elizondoko eskolak har ditzake bereziki familia erdaldunen haurrak. Horrek ikasle erdaldunen kopurua eta euskaldunen eta erdaldunen artean dagoen harremana aldatzea litekeena da.
20. Proiektuak eragina izanen du elkarteetako hizkuntza erabileran (gazte, kultura, kirol, aisialdi elkarteetan eta halakoetan)?	Bai	Gizarte bizitzan sartu ahal, kanpotik etorritako familia horiek elkarteetan ere hartuko dute parte eta litekeena da horietako hizkuntza erabileran eragina izatea.
21. Proiektuak eraginik izanen du elkarteetako komunikazioan (gazte, kultura, kirol, aisialdi elkarteetan eta halakoetan)?	Bai	Gizarte bizitzan sartu ahal, kanpotik etorritako familia horiek elkarteetan ere hartuko dute parte eta litekeena da horietako komunikazioan eragina izatea.
22. Proiektuak eraginik izanen du elkartearen adierazpen publikoetan (guraso, gazte, kultura, kirol, aisialdi elkarteetan eta halakoetan)?	Bai	Gizarte bizitzan sartu ahal, kanpotik etorritako familia horiek elkarteetan ere hartuko dute parte eta litekeena da horien adierazpen publikoetan eragina izatea.
5. BIZTANLERIAREN EZAUGARRIAK		
23. Proiektuak handitu du bertako biztanle kopurua?	Bai	228 etxebizitza berri aurreikusita daude. Erosteke ahalmen handiko jendea erakarriko lukete. Horietako batzuk bigarren etxebizitza izan balitezke ere, biztanleak handitzea litekeena da.
24. Proiektuak aldatuko ditu bertako biztanleriaren ezaugarriak?	Bai	Kanpotik etorritako familia kopuru handi horrek biztanleen ezaugarriak, bertzeak bertze, soziolinguistikoak, aldatzea litekeena da.
25. Proiektuak aldaketarik ekar dezake biztanleriaren euskararen ezagutzan?	Bai	228 etxebizitza aurreikusita daude. Familia berri horiek Udalerritik eta eskualdetik kanpotik etorriko liratekeela pentsatzekoa da, baina ez litzateke populazio etorkina izanen. Dena dela, ezin da jatorriaren aurreikuspenik egin, sustatzaileek zein pertsona mota etortzea aurreikusten duten ez baitakigu. Baina, horrek biztanleriaren euskararen ezagutzan eragina izatea litekeena da.
26. Proiektuak aldaketarik ekar dezake	Bai	Egoiliar berri erdaldunak eta bisitari

biztanleen euskararen erabileran?		erdaldunak emendaturik, euskararen erabileran ondorioak izatea litekeena da.
27. Proiektuak handituko du bertako bisitarien kopurua?	Bai	Kirolgunea (golf zelaia; golf praktika-zelaia; golf eskola; eta lorezaintza eskola) eta hotelgunea (hotela-bainuetxea-spa, 135 logelakoa, 4 izarrekoa; hotelari atxikitako eraikinak, biltzar eta ospakizunetarakoak; eta jatetxea) bisitari erakarmen handiko gunea izatea litekeena da.
28. Proiektuak aldatuko ditu bisitarien ezaugarriak?	Bai	Proiektuaren nolakotasuna (kalitatezko turismoa, goi mailakoa) aintzat harturik bisitariak erosteko ahalmen handiko jendea izatea litekeena da eta horrek bisitarien ezaugarriak erabat aldatuko lituzke.
29. Proiektuak alda dezake bertakoen adin-egitura? Hau da, herritik kanpora joatera edo herrira bizitzera etortzera bultzatuko al ditu gazte, heldu edo adindun euskaldunak?	—	

Alderdi edo adierazle-atal bakoitzean eraginik aurreikusten den ala ez ihardetsirik, alderdi bakoitzean izan litekeen eragina 11 atributuren arabera zenbatetsiko da.

Adierazleak

1. **Izaera**: zer eragin mota den, positiboa (+1x), negatiboa (-1x) edo neutroa (0 x).
2. **Eragina**: eragin edo ondorio zuzena edo zeharkakoa duen (1-4).
3. **Intentsitatea**: eraginaren suntsipen maila (1-3-4-8-12).
4. **Hedadura**: eraginak joko duen eremua (auzoa, herria, eskualdea...) (1-2-4-8).
5. **Unea**: eraginaldia unean berean edo aitzina begira (4-2-1).
6. **Iraunkortasuna**: eraginak iraunen duen denbora (1-2-4).
7. **Itzulgarritasuna**: kaltetutako egoera bere onera berez etortzeko aukera (1-2-4).
8. **Berreskuragarritasuna**: ukitutako egoera lehengoratzeko aukera (1-2-4-8).
9. **Sinergia**: bi eragin arruntek edo gehiagok eragina indartzen duen (1-2-4).
10. **Metaketa**: eragina handitzen delarik arazoak segitzen duelakoz (1-4).
11. **Aldizkakotasuna**: eragina etengabea, aldizkakoa edo etena den (4-2-1).

3.3 Eragin linguistikoa zenbatetsia

Lehenengo eta behin argitu behar da planak izan dezakeen eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko aurreikusten diren esku-hartzeak osotasunean garatuta gerta daitekeena izan dela kontuan. Udalaz gaindiko plana izanda, zaila da proiektuaren gaineko informazio xehetua izatea, eraikuntza lanek zein fase izango dituen, zenbat denboran egitea aurreikusten den eta jendea nondik erakartzea sustatu nahi den, besteak beste.

Hori horrela izanik, eta beste informaziorik ezean, proiektuak aurreikusten duena osotasunean eta dena batera eraikiz gero gerta daitekeenaren ebaluazioa egin dugula argi uztea komenigarria da.

Adier.	Izae.	Erag.	Inten.	Hed.	Unea	Iraun.	Itzul.	Berres.	Sin.	Meta.	Aldiz.	Indiz.	indiz.	
1	-1 x	1	3	8	4	4	4	8	1	1	4	52	51,0	Larria
2	0 x											0		
3	-1 x	1	3	8	2	4	4	8	1	1	4	50		
4	-1 x	4	12	8	2	4	4	4	1	1	4	76		
5	+1 x	1	4	8	4	4	4	8	1	1	4	55		
6	+1 x	1	8	8	2	4	4	8	1	1	4	65		
7	-1 x	1	12	8	4	4	4	4	2	1	4	76		
8	-1 x	1	4	8	2	4	4	4	1	1	4	49		
9	-1 x	1	8	8	2	4	4	4	1	1	4	61		
10	+1 x	4	3	8	2	4	4	8	1	1	4	53		
11	-1 x	4	3	8	2	4	4	8	1	1	4	53		
12	-1 x	1	1	8	2	4	4	8	1	1	4	44		
13	-1 x	1	1	8	2	4	4	8	1	1	4	44		
14	-1 x	1	3	8	2	4	4	8	1	1	4	50		
15	-1 x	4	3	2	4	4	4	8	1	1	4	43		
16	0 x											0		
17	-1 x	1	12	8	2	4	4	4	1	1	4	73	59,2	Larria
18	-1 x	1	3	4	2	4	2	4	1	1	4	36		
19	-1 x	1	8	4	2	4	4	4	2	1	4	54		
20	-1 x	1	12	8	2	4	4	4	2	1	4	74		
21	-1 x	1	8	8	2	4	4	2	1	1	4	59		
22	-1 x	1	8	8	2	4	4	2	1	1	4	59		
23	-1 x	4	12	8	2	4	4	4	1	1	4	76	77,5	Kritikoa
24	-1 x	4	12	8	2	4	4	4	1	1	4	76		
25	-1 x	4	12	8	2	4	4	4	2	1	4	77		
26	-1 x	4	12	8	2	4	4	4	1	1	4	76		
27	-1 x	4	12	8	2	4	4	8	1	1	4	80		
28	-1 x	4	12	8	2	4	4	8	1	1	4	80		
29	0 x											0		

3.4 Ondorio orokorrak

Uste dugu proiektu honek eragin negatiboa izango duela hizkuntzarengan eta eragin negatibo hori larria eta kritikoa izango dela, gainera, zenbait alderditan. Herrigunetik aparte dagoen inguru hori berregokitzeak jende berri asko ekarriko du Baztanera, bizigunea erakargarria izango da, batez ere, kanpotarrentzat eta ez horrenbeste bertakoentzat. Orain arte udalerrian nagusi izan ez den bisitari mota bat ekarriko du eta litekeena da bezero horrek ez balioestea tokiko kultura berezitasuna.

Espero diren biztanle berri horien jatorriaz deus ez du adierazia enpresa sustatzaileak, hau da, nongo etxebizitza eroslea erakarri nahi duen ez du zehaztu. Aurreikustekoa da, dena dela, etorriko den kopuru handiena euskararen ezagutzarik ez duten pertsonak izatea. Baztangoak zein inguruko eskualdetakoak etortzea ez da aukeren artean ikusten, izan ere, Baztanen bertan dagoeneko 800 etxebizitza huts daude eta Baztango bizimoduan txertatzera datorrenak errazago erosiko du herriguneetan kokaturik dauden etxebizitzaren bat. Hortaz, pentsatzekoa da etxebizitzak erosiko dituzten pertsonen tipologia ez duela bat egingo orain arteko migrazio joerekin.

Aisialdiko zerbitzuez hornitutako bizigune bat izanda, suposatzen da bertaratuko diren familia askok deskantsurako eta aisialdirako erabiliko dutela bizigunea. Etorriko diren familiek Baztanekiko bizitza paraleloa izatea aurreikus daiteke eta uste dugu herriko bizimoduan integratzea ez dela izango horietako askoren asmoa. Bertalde, familia horiek egoiliar bihurtuko diren ez da ziurra, izan ere, pentsatzekoa da erosle askok noizbehinkako erabilera emango diotela etxebizitzari. Baina argi ikusten da biztanle izan edo ez orain arteko hizkuntzaren egoerari nabarmen eragingo diola esku-hartze honek. Zalantza dago aurrez esan bezala etxebizitzari emango dien erabileran, ez baita ziurra familia horiek egoiliar bihurtuko diren.

Eragin hori, batik bat, Elizondon eta Lekarozen izanen da nabarmena. Lekarozen, batetik, proiektua bertako auzune batean eraikiko delako; eta, Elizondon, bestetik, bizitegi berriak zerbitzuz horniturik egonen ez direnez, bisitari nahiz biztanleek ondoko herri nagusira joko dutelako hainbat eginkizun burutzerak: erosketak direla, osasun zerbitzuak direla...

Eraikuntza garaian lehenengo, eta, negozioen funtzionamendua bermatzeko ondoren, lanpostu berriak sortuko dira, baina ez dugu daturik esateko lanpostu horiek zeintzuk beteko dituzten, eraikuntza lanak egingo dituen enpresaren esku egongo baita langileen kontratazioa eta Baztango Udalak ez baitu erabakitzeke ahalmenik izango. Dena dela, posible da bertakoek bete ahal izatea, baina ez dago daturik hori bermatu ahal izateko.

Kontuan hartzekoa da kanpotik etorritako familiak, batik bat euskaraz mintzatzen ez direnak, Elizondoko eta Irurritako eskoletan sumatuko direla eta horrek Elizondoko eskolan iraungitzeko bidean dagoen A eredu berrindartzeko arriskua eragiten duela.

Lekarozen 341 pertsona bizi dira egun, baina 228 etxebizitzetara 3 pertsona etorriko direla aurreikusiz gero, 684 biztanle berri izango genituzke. Hori horrela izanez gero, %200 haziko litzateke biztanleria. Biztanle horien hizkuntzari erreparatuz gero, pentsatzekoa da gehientsuak ez direla izango euskal hiztunak eta horrek herriko euskararen ezagutzaren indizean intentsitate handiz eragingo lukeela.

4. ONDORIOAK LABUR ALDERDIZ ALDERDI

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa tresna baliagarria da jarduerak —batik bat hirigintzakoek— udalerriko euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikusteko.

Emaitzek, oro har, bat egiten dute teknikoki genituen aurreiritzi edota intuizioekin:

- *Bizi-kalitatean* eragin **larria** izango du, gehienbat proiektuak ekarriko lukeen etxebizitzaren garestitzeari egoztekoa.
- *Ekonomia* alorrean eragin negatiboa izango du, baina **garrantzi gutxikoa**. Batetik, positibotzat jo da sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzea litekeena delako. Bestetik, tokiko negozioak erdalduntzea proiektuak erakarritako biztanle eta bisitari erdaldunak herrian bezero berriak izanen dira eta litekeena da bezeria berriaren hizkuntza ezaugarriek eragina ekartzea tokiko negozioetara.
- *Azpiegituretan* eragin **moderatu**a, oinarritzko zerbitzuetan, tokiko eskoletan eta osasun zerbitzuetan besteak beste. Bisitari eta biztanle berrien hizkuntza ezaugarrietara egokitzeko zerbitzu horien hizkuntza eskaintzan eragina izatea litekeena da.
- *Komunitatearen gizarte eta kultura bizitzan* eragin **larria**, biztanle berriak nahiz bisitari egonkorrak, gehien-gehienak erdaldunak, udalerriko gizarte harreman sareetan sartuko baitira.
- *Biztanleriaren ezaugarri soziolinguistikoetan* eragin **kritikoa**, jende alofonoaren etorrerak bertako biztanleriaren hizkuntza tipologian eragin zuzena izanen baitu. Aurreikusita dagoen etxebizitza kopurua osotasunean eraikiz gero eta bertara jendea bizitzera etorritik gero, eragina kritikoa izango da. Lekaroz hartuz gero erreferentzia %200 igoko litzateke biztanle kopurua. Elizondo hartuz gero, %19 haziko litzateke eta Baztan hartuz gero %8,7.

5. PROPOSAMENA

Neurri zuzentzaileak. Aroztegiko UGPSk aitzina eginen balu, Udalak batzorde diziplinartekoa (hirigintza, euskara, garapen eta bertze arloren bateko teknikariek osatua) eratzea aurreikusi diren balizko eragin horien aitzinean har litezkeen neurri zuzentzaileak Udalari proposatzeko.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa sistematikoki ezartzea administrazio prozeduran: ELE tresna jarduerak —batik bat hirigintzakoek— udalerriko euskararen egoeran izan dezaketen eragina aurreikusteko tresna baliagarria dela ikusirik, Udalak bideratzen dituen prozeduretan ebaluazio horren beharra sistematizatzea.

6. BIBLIOGRAFIA

EUSKARABIDEA (2015). Baztango datu demolinguistikoak (1991-2001-2011). Txosten argitaragabea.

NAFARROAKO GOBERNUA eta EUSKARABIDEA (2015). *Nafarroako mapa soziolinguistikoa. 2011.*

Sarean: <http://www.euskarabidea.es/fitxategiak/dokumentuak/testuak/mapa-soziolinguistikoa-2011_txostena-2.pdf>

NAFARROAKO GOBERNUKO SUSTAPEN DEPARTAMENTUKO LURRALDE ANTOLAMENDU ETA HIRIGINTZA ZERBITZUA (2014). Informe previo a su tramitación del Plan Sectorial de Incidencia Supramunicipal del área turística, hotelera, deportiva y residencial del entorno del "Palacio de Arozteguía" en Lekarotz, promovido por la mercantil Palacio de Arozteguía, S.L. Txosten argitaragabea.

TORRENE CONSULTING, BAI ARKITEKTURA HIRIGINTZA eta ARTEZ EUSKARA ZERBITZUA (2014) Gipuzkoako Foru Aldundia. 2014. ELE proiektua. Tolosaldeko Eremu Funtzionaleko Lurralde Zatiko Planaren Eragin Linguistikoaren txostena. Txosten argitaragabea.

UEMA (2015). ELE hizkuntzaren prebentziorako araudia. Txosten argitaragabea.

Baztan-Elizondon, 2015eko uztailak 3.



Paula Kasares

Baztango Udaleko Euskara zerbitzuko teknikaria